

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko otsaila

Euskal AEko hotel-establezimenduetan sarrerak % 4,9 igo ziren 2025eko otsailean, eta ostatu-gauak % 4,4

Atzerriko jatorria duten sarrerak % 4,6 gehitu dira eta % 4,1 horien ostatu-gauak

Eustaten datuen arabera, **2025eko otsailean** % 4,9 igo dira sarrerak Euskal AEko hotel-establezimenduetan eta % 4,4 ostatu-gauak, urte artean. Erregistratutako 232.954 sarrerek 426.364 ostatu-gau izatea eragin dute.

Sarreraren % 33,6 eta ostatu-gauen % 35,3 atzeritik etorritako pertsonenak izan dira, ehunekoa % 4,6 igo ondoren sarreraren kasuan eta % 4,1 ostatu-gauen kasuan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Otsaila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	2024/02
EUSKAL AE	232.954	4,9	426.364	4,4	1,83	1,84
Estatukoak	154.565	5,0	275.851	4,5	1,78	1,79
Atzerritarrak	78.389	4,6	150.513	4,1	1,92	1,93
Araba/Álava	31.337	6,3	65.600	0,7	2,09	2,21
Estatukoak	25.253	7,8	50.433	7,9	2,00	1,99
Atzerritarrak	6.084	0,8	15.167	-17,6	2,49	3,05
Vitoria-Gasteiz	25.637	6,5	56.118	-0,8	2,19	2,35
Bizkaia	105.763	5,6	193.245	7,1	1,83	1,80
Estatukoak	72.547	6,9	126.023	7,4	1,74	1,73
Atzerritarrak	33.216	2,6	67.222	6,6	2,02	1,95
Bilbao	77.060	5,5	140.545	7,3	1,82	1,79
Gipuzkoa	95.854	3,7	167.519	2,8	1,75	1,76
Estatukoak	56.765	1,6	99.395	-0,4	1,75	1,79
Atzerritarrak	39.089	6,9	68.124	7,9	1,74	1,73
Donostia / San Sebastian	66.883	5,6	114.405	3,9	1,71	1,74

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Martxoaren 20a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabak 31.337 sarrera eta 65.600 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko otsailean baino % 6,3 eta % 0,7 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2025eko otsailean, 105.763 sarrera erregistratu dira, 2024ko otsailean baino % 5,6 gehiago, 193.245 ostatu-gau ematea eraginez, aurreko urteko hil berean baino % 7,1 gehiago. Gipuzkoan, bestalde, sarrerak % 3,7 igo dira eta % 2,8 ostatu-gauak; guztira, 95.854 sarrera eta 167.519 ostatu-gau erregistratu dira.

Hiriburuen arabera, sarreraren kopurua % 6,5 igo da Gasteizen, % 5,6 Donostian eta % 5,5 Bilbon. Ostatu-gauen kopurua, aurreko urteko otsailaren aldean, % 0,8 jaitsi da Gasteizen eta % 7,3 eta % 3,9 igo da Bilbon eta Donostian, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan batez besteko egonaldia, 2025eko otsailean, 1,83 egunekoa izan da, aurreko urteko hil berean izandakoa (1,84 egun) baino pixka bat txikiagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Otsaila 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/02	p.p. *	2025/02	p.p. *	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	44,6	0,6	55,7	0,9	79,28	4,0	44,17	5,7
Araba/Álava	45,1	1,4	60,2	3,0	68,68	4,6	41,36	10,2
Vitoria-Gasteiz	47,3	1,1	65,1	3,2	61,73	6,2	40,18	11,7
Bizkaia	44,4	1,9	56,5	1,9	80,49	2,2	45,48	5,7
Bilbao	49,3	0,4	62,1	0,3	84,17	0,2	52,27	0,6
Gipuzkoa	44,7	-1,2	53,1	-0,9	82,20	5,9	43,67	4,1
Donostia / San Sebastian	48,7	0,2	55,4	-0,2	91,77	4,3	50,85	4,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Martxoaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko otsaileko okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 44,6koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 55,7koa logelen arabera neurtuta. 2024ko otsailaren aldean, igoerak ehuneko 0,6 eta 0,9 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEn, 2025eko otsailean, bainugela duen logela bikoitz bati edo ADR bati eguneko aplikatutako batez besteko tarifa 79,3 eurokoa izan da; hau da, % 4,0 igo da aurreko urteko otsailaren aldean. ADRa 82,2 eurotan kokatu da Gipuzkoan, 80,5 eurotan Bizkaian eta 68,7 eurotan Araban. Hiriburuen arabera, ADRaren balioak hauek izan dira: 91,8 euro Donostian, 84,2 euro Bilbon eta 61,7 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2025eko otsailean, RevPar edo logela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 44,2 euro izan dira, aurreko urteko hil berean baino % 5,7 gehiago.

Informazio-oharra

2025eko otsaileko hotelen ETHren erantzun-tasa % **96,2**koa izan da. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62